

BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

236

EBAZPENA, 2019ko abenduaren 20koa, Eusko Jaurlaritzako Trafikoko zuzendariarena, 2020. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko trafikoa arautzen duten neurri bereziak ezartzeko dena.

Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu bateginaren 18. artikuluan azaltzen denez (urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartua), trafiko arloko agintaritzari eratziki zaio trafikoa erregulatzeko neurri bereziak hartzeko ahalmena, zirkulazio segurua eta arina bermatzeko beharrezkoa denean. Zirkulazio Erregelamendu Orokorra onartzen duen azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuak, besteak beste, 37. eta 39. artikuluetan neurri horietako batzuk zehazten ditu eta horiek hartzeko prozedura arautzen du.

Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) eremuan, Trafikoko zuzendariari dagokio arestion aipatu diren neurriak hartzea, arau hauek ezartzen dutenaren arabera: urriaren 15eko 3256/1982 Errege Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoari trafikoari eta ibilgailuen zirkulazioari buruzko estatu-legeen betearazpena transferitzen diona, eranskinaren B.1.g) apartatua; eta apirilaren 11ko 83/2017 Dekretua, Segurtasun Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duena, 17.3.d) artikulua.

Ebazpen honen bidez trafikoa arautzeko neurri bereziak ezarri nahi dira, hainbat ibilgailu edo ibilgailu-multzotarako, bide-segurtasunari, mugikortasunari eta zirkulazioaren arintasunari eragiten dioten egun zehatzetan. Egun horiek aukeratu dira hainbat faktore kontuan hartuta, esaterako EAEko jaiegunen egutegia, asteburuak, oporren hasierako edo amaierako aldiak, jai-zubiak edo zirkulazioaren gainean eragina izan dezaketen bestelako inguruabarrak.

Hori guztia dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Zirkulazio-murrizketak.

2020. urterako, EAEn, hemen zerrendatutako zirkulazio-murrizketak ezarri dira:

1.— Kirol-probak, txirrindularien lasterketak eta bestelako ekitaldiak.

Azaroaren 21ean 1428/2003 Errege Dekretuaren bidez onartuta, Zirkulazio Erregelamendu Orokorrak 55. artikuluan eta II. eranskinean xedatzen duenaren arabera, Trafikoko Lurralde arduradunek ez dute inolako kirol-probarik edo bestelako ekitaldirik baimenduko (lehiaketa izan zein ez izan), ezta horien aldeko txostenik emango ere, baldin eta kirol-proba edo ekitaldi horiek egiteko, ebazpen honen I. eranskinean zehaztutako egunetan eta orduetan bete behar badituzte galtzadak eta bazterbideak hiriarteko bide publikoetan.

Salbuespen gisa, baimendu ahal izango dira honako kirol-proba, bizikleta-martxa eta bestelako ekitaldi hauek:

– Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasunak (TNB) edo nazioz gaindiko antzeko erakundeek antolatzen dituzten nazioarte mailakoak;

– bi baldintza hauek betetzen dituztenak: irteerako edo itzulerako operazioengatik ibilgailu-intentsitate handia duten bideei ez eragitea, eta probara bertaratzeko nahiko agente egotea;

– hauteskunde-prozesuekin bat datozenak, baldin eta bozkatzeko eskubidea bermatzen bada hauteslekuetarako sarbidea erraztuta, eta probara bertaratzeko agente nahikoak badaude.

2.– Salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuak.

1) Salgai Arriskutsuen Errepidezko Garraioari buruzko Europako Akordioaren (ADR) arabera, arriskuaz ohartarazteko arauzko panel larankak eduki behar dituzten ibilgailuak zirkulatzea debekatuta dago EAEko bide publiko guztietan, zirkulazioaren edozein noranzkotan, egun eta ordu hauetan:

– Igande eta jaiegunetan (EAE osoan): 08:00etatik 24:00etara, eta

– jaiegunen bezperetan (EAE osoan): larunbatak ez badira, 16:00etatik 24:00etara.

Salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuei aplikatuko zaizkie, 7.500 kg-tik gorako BGM badute, atal honetan ezarritako murrizketez gain, ebazpen honetan hirugarren murrizketaren barruan jasotzen direnak ere, hau da, salgaiak garraiatzen dituzten eta 7.500 kg-tik gorako BGM duten ibilgailuei dagozkienak.

2) Aurreko puntuan ezarritako debekuetatik salbuetsita daude ebazpen honen III. eranskinean jasotako salgaiak garraiatzen dituzten ibilgailuak, bertan xedatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

3) Salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuek egin beharreko ibilbideak. Espainiar lurraldeko errepideetan zehar salgai arriskutsuen garraioak arautzen dituen otsailaren 14ko 97/2014 Errege Dekretuaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera eta Salgai Arriskutsuen Errepidezko Garraioari buruzko Europako Akordioaren (ADR) arabera, salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuek ibilbide hauek erabili beharko dituzte:

A) Banaketarako joan-etorriak: salgai arriskutsuak erabiltzaileei edo kontsumitzaileei banatzeko egiten diren joan-etorrietan, ibilbiderik egokiena erabiliko da, bide-segurtasunari zein trafikoaren arintasunari begira. Errepide arruntetan zehar ahalik eta distantziarik laburrena egingo da salgaia eman behar den lekuraino.

Biztanle-guneetatik kanpo ingurabiderik, saihezbiderik edo biribilgunerik badago, nahitaez erabili beharko ditu. Horrelako aukera bat baino gehiago izatekotan, biztanle-gunetik urrutien dagoena erabili beharko da. Hirigunean zama lanak egiteko soilik sar daiteke, eta betiere, salgaiak emateko lekutik hurbilen dagoen sarrera erabiliz, ezinbestekoren bat gertatu ezik.

B) Bestelako joan-etorriak: joan-etorriaren jatorria eta helmuga Salgai Arriskutsuen Ibilbideen Sarearen –SAIS– barruan badaude (ebazpen honen V. eranskinean dago), salgai arriskutsuak daramatzaten ibilgailuek nahitaez erabili beharko dituzte euren ibilbidean.

Joan-etorriaren jatorria edo helmuga (edo biak) SAISetik kanpo badaude, sare horretan martxaren noranzkoan eta hurbilen dagoen sarreratik sartzen uzten duten errepide arruntetatik egin beharko dira joan-etorriak, galtzada bakarreko bideetan egiten den ibilbidea ahalik eta laburrena izatea bermatze aldera. Arrazoi berbera dela bide, salgaien helmugatik martxaren noranzkoan eta hurbilen dagoen irteera erabiliko da SAISetik irteteko.

Hemen aipatu diren bideez bestelakoetan ibiltzeko, baimen berezia beharko da, ebazpen honen bigarren apartatuan xedatutakoarekin bat etorritik emango dena.

SAISetik irten daiteke gidariaren ohiko bizilekura edo handik egindako joan-etorrietan, eguneroko edo asteroko atsedendia egiteko edo egitetik itzultzeko, eta ibilgailua konpontzeko edo mantentzeko lanetarako, edo garraio-enpresa dagoen lekura sartzeko, betiere ADRn zehaztutako segurtasun- eta babes-baldintzak betetzen badira. SAIS uzten den kasu hauetan, gidariaren helmuga den tokitik hurbilen dagoen irteeratik irtengo da.

4) Aurreko puntuetan xedatutakoa ez da aplikatuko baldin eta, zama mota, kopurua edo garraio mota direla-eta, salgai arriskutsuen garraioa ADRn jasotako salbuespenetako baten arabera egiten bada.

3.– Salgaien garraiorako ibilgailuak, haien baimendutako gehieneko masa (BGM) edo ibilgailu-taldearen baimendutako gehieneko masa (ITBGM) 7.500 kg-tik gorakoa denean.

1) Debekatuta dago 7.500 kg baino gehiagoko BGMko edo ITBGMko ibilgailuek zirkulatzea, EAEko bide publikoetan, II. eranskinean jasotzen diren egun eta orduetan.

2) Aurreko debekua ez zaio aplikatuko ebazpen honen IV. eranskinean jasotako salgaiak garraiatzen dituzten ibilgailuen zirkulazioari.

4.– Zirkulazio baimen osagarria behar duten ibilgailuak (euren ezaugarri teknikoengatik edo garraiatzen duten zamaren ezaugarriengatik) eta zirkulazio baimen osagarria behar ez duten ibilgailu bereziak.

1) Debekaturik izango dute bide publikoetatik zirkulatzea, ondoren adieraziko diren egun eta orduetan, zirkulatzeko baimen osagarria behar duten ibilgailuek, ezaugarri teknikoak edo garraiatutako zama direla-eta, lege ezarritako gehieneko masak edo neurriak gainditzeagatik (abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak onartutako Ibilgailuen Erregelamendu Orokorren 14. artikulua):

– Igande eta jaiegunetan (EAE osoan): 08:00etatik 24:00etara, eta

– jaiegunen bezperan (EAE osoan): 16:00etatik 24:00etara.

Halaber, ibilgailu horiek ebazpen honen II. eranskinean jasotako zirkulazio-murrizketak bete beharko dituzte.

2) Zirkulazio baimen osagarriak gabeko nekazaritza-makineriako edo obra eta zerbitzuetako ibilgailu bereziei ebazpen honen II. eranskinean jasotako murrizketak aplikatuko zaizkie.

3) Hala ere, murrizketok ez zaizkie aplikatuko IV. eranskinean aipatutako gaiak garraiatzen dituzten edo eginkizun horiek egiten dituzten ibilgailuei.

5.– Murrizketa osagarriak.

1) Ibilgailuen Erregelamendu Orokorreko 37. eta 39. artikuluetan ezarritakoaren arabera, ezusteko kasuetan edo aparteko gorabeherak direnean, zirkulazioa seguruagoa edo arinagoa izan dadin beharrezkoa denean, trafikoaren zaintzaz eta diziplinaz arduratzen den agintaritzaren agenteei zehaztutako murrizketak behar den denbora guztirako, eta, horretarako, beharrezko erabakiak hartuko dituzte.

2) Gainera, meteorologia fenomeno kaltegarriak gertatzen direnean (elurra, izotza, ikuspen eskasa behe-lainoa direla-eta, edo haize bortitza...), ibilgailu zehatzei ezar dakizkiekeen zirkulazio-murriztapenak eragotzi gabe, 3.500 kilo baino gehiagoko BGM duten kamioiek, autobusek, autobus artikulatuek eta ibilgailu-taldeek bideko eskuineko erreitik joan behar dute nahitaez. Ezin izango dituzte aurreratu abiadura txikiagoan zirkulatzen duten ibilgailuak, ezta aurrea hartu ere, aurreko paragrafoan aipatutako 37. eta 39. artikuluetan adierazitakoaren arabera.

Bigarrena.– Baimen bereziak.

Zerbitzu bat nahitaez egin beharra dagoela behar bezala justifikatuta dagoenean, aldi baterako edo bidaia bakarra egiteko baimen bereziak eman ahal izango dira, ebazpen honetan murriztutako egunetan eta aldietan zirkulatzeke, Zirkulazio Erregelamendu Orokorren 39.5 artikulua xedatutakoaren arabera.

Baimen berezi horietan matrikula, ibilgailuaren ezaugarri nagusiak, garraiatutako salgaia, eragindako bideak eta garraioaren baldintzak agertuko dira.

Trafikoko lurralde-bulegoetako arduradunei dagokie, Trafikoko zuzendariak eskuordeturik, baimen bereziak ematearekin zerikusia duten ahalmenez baliatzea.

Hirugarrena.– Zehapenak eta kautelazko neurriak.

Ebazpen honetan dauden neurri arautzaileak ez betetzea zehatu egingo da, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu bateginean xedatutakoaren arabera.

Era berean, trafikoaren zaintzaz eta diziplinaz arduratzen diren agenteek ibilgailua nahitaez ibilgetzeko neurri osagarria ezar dezakete, zirkulazioa arriskutsua bada edo zirkulazioari oztopo larriak sortzen badizkio. Gainera, beharrezkoa bada errepidetik kendu edo gordailuan utziko dute, debekua amaitu arte edo berriz abiatzeko baimena eman arte, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu bateginaren arabera.

Laugarrena.– Zirkulazioaren murrizketak kentzea.

Eusko Jaurlaritzako Trafikoko Zuzendaritzak 1. artikuluko hirugarren murrizketaren barruan agertzen diren ibilgailuei ebazpen honetan ezarritako murriztapen-aldietan zirkulatzen utzi ahal die. Neurri hori salbuespenez hartuko da, zirkulazioaren baldintzak aintzakotzat hartuta, eta, ondorioz, jarraibide egokiak emango zaizkio Ertzaintzari.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea eta indarraldia.

Ebazpen hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta zortzi egun baliodunera jarriko da indarrean, eta 2020. urtean zehar egongo da indarrean. Dena den, indarraldia luzatuko da 2021. urterako, trafikoa arautzeko neurri bereziak ezartzen dituen ebazpena indarrean sartu arte, I. eta II. eranskinetako data zehatzei dagozkien murrizketak izan ezik.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 20a.

Trafikoko zuzendaria,
SONIA DÍAZ DE CORCUERA RUIZ DE OÑA.

I. ERANSKINA

KIROL-PROBAK, TXIRRINDULARIEN LASTERKETAK
ETA BESTELAKO EKITALDIAK

Hauteskunde-prozesuak, erreferendumak, plebisituak edo bestelako herri-kontsultak dauden egunetan, 00:00etatik 24:00etara, eta egun hauetan:

Eguna	Ordua	Lurraldeak
Urtarrilak 5	00:00 - 24:00	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa
Urtarrilak 6	15:00 - 24:00	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa
Martxoak 18	15:00 - 24:00	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa
Martxoak 19	00:00 - 15:00	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa
Martxoak 22	15:00 - 24:00	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa
Apirilak 8	15:00 - 24:00	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa
Apirilak 9	00:00 - 15:00	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa
Apirilak 13	00:00 - 24:00	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa
Apirilak 30	15:00 - 24:00	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa
Maiatzak 1	00:00 - 15:00	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa
Maiatzak 3	15:00 - 24:00	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa
Maiatzak 8	00:00 - 24:00	Gipuzkoa
Maiatzak 21	00:00 - 24:00	Gipuzkoa
Maiatzak 31	00:00 - 24:00	Gipuzkoa
Ekainak 1	00:00 - 24:00	Gipuzkoa
Ekainak 30	15:00 - 24:00	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa
Uztailak 1	00:00 - 15:00	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa

2020ko urtarilaren 20a, astelehena

Eguna	Ordua	Lurraldeak
Uztailak 14	00:00 - 24:00	Gipuzkoa
Uztailak 30	15:00 - 24:00	Bizkaia, Gipuzkoa
Uztailak 31	00:00 - 24:00	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa
Abuztuak 1	00:00 - 24:00	Araba, Gipuzkoa
Abuztuak 2	00:00 - 24:00	Araba, Gipuzkoa
Abuztuak 14	15:00 - 24:00	Gipuzkoa
Abuztuak 15	00:00 - 24:00	Gipuzkoa
Abuztuak 16	00:00 - 24:00	Gipuzkoa
Abuztuak 21	15:00 - 24:00	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa
Abuztuak 22	00:00 - 24:00 15:00 - 24:00	Gipuzkoa Araba
Abuztuak 23	00:00 - 24:00 15:00 - 24:00	Gipuzkoa Araba, Bizkaia
Abuztuak 29	00:00 - 24:00	Araba
Abuztuak 30	00:00 - 24:00	Araba
Abuztuak 31	00:00 - 24:00	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa
Urriak 9	15:00 - 24:00	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa
Urriak 10	00:00 - 15:00	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa
Urriak 12	15:00 - 24:00	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa
Azaroak 1	00:00 - 24:00	Gipuzkoa
Azaroak 11	00:00 - 24:00	Gipuzkoa
Abenduak 4	15:00 - 24:00	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa
Abenduak 5	00:00 - 15:00	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa

Eguna	Ordua	Lurraldeak
Abenduak 8	15:00 - 24:00	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa
Abenduak 24	00:00 - 24:00	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa
Abenduak 25	00:00 - 24:00	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa
Abenduak 31	00:00 - 24:00	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa
2021eko urtarrilaren 1	00:00 - 24:00	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa

II. ERANSKINA

SALGAIK, ORO HAR, ETA SALGAI ARRISKUTSUAK

EAEko errepideetan, 7.500 kg baino gehiagoko BGMko ibilgailuek murrizketa hauen arabera zirkulatuko dute:

1. Uda garaian.

Debekatuta dago 7.500 kg baino gehiagoko BGMko ibilgailuek zirkulatzea, ekainaren 6tik irailaren 6ra arte.

a) Larunbatetako, igandeetako eta jaiegunetako 11:00etatik 14:00etara, errepide hauetan:

Bidea	Izena	Hasierako KP	Amaierako KP	Noranzkoa
A-8	Kantauriko autobidea	119,5	139,21 Kantabria	Kantabria
A-1	Madril-Irun	352 N-622 lotunea	336 Trebiñu	Burgos
A-1	Madril-Irun	329 Trebiñu	321 Burgos	Burgos

b) Igandeetako eta jaiegunetako 16:00etatik 21:00etara, errepide hauetan:

Bidea	Izena	Hasierako KP	Amaierako KP	Noranzkoa
A-8	Kantauriko autobidea	139,21 Kantabria	119,5	Bilbao
A-1	Madril-Irun	321 Burgos	329 Trebiñu	Vitoria-Gasteiz
A-1	Madril-Irun	336 Trebiñu	352 N-622 lotunea	Vitoria-Gasteiz

2. Data zehatzak.

Debekatuta dago 7.500 kg baino gehiagoko BGMko ibilgailuek zirkulatzea, bide publiko hauetan, hemen adierazitako egun eta orduetan:

1.– 17:00etatik 21:00etara, egun hauetan: urtarrilaren 3an, ekainaren 26an, urriaren 9an eta abenduaren 4an.

11:00etatik 14:00etara, egun hauetan: urtarrilaren 4an, ekainaren 27an, urriaren 10ean eta abenduaren 5ean.

Bidea	Izena	Hasierako KP	Amaierako KP	Noranzkoa
A-8	Kantauriko autobidea	119,5	139,21 Kantabria	Kantabria
N-634	Donostia / San Sebastián-Santander	107	136,140 Kantabria	Kantabria

2.– 16:00etatik 21:00etara egun hauetan: urtarrilaren 6an, urriaren 12an, abenduaren 8an eta 27an, eta 2021eko urtarrilaren 3an.

Bidea	Izena	Hasierako KP	Amaierako KP	Noranzkoa
A-8	Kantauriko autobidea	139,21 Kantabria	119,5	Bilbao
N-634	Donostia / San Sebastián-Santander	136,140 Kantabria	107	Bilbao

3.– 17:00etatik 21:00etara, egun hauetan: martxoaren 18an eta apirilaren 8an.

10:00etatik 15:00etara, egun hauetan: martxoaren 19an eta apirilaren 9an (A-1etik izan ezik).

Apirilaren 9an, A-1etik 08:00etatik 14:00etara.

Bidea	Izena	Hasierako KP	Amaierako KP	Noranzkoa
A-8	Kantauriko autobidea	119,5	139,21 Kantabria	Kantabria
N-634	Donostia / San Sebastián-Santander	107	136,140 Kantabria	Kantabria
AP-1	Burgos-Kantabrikoa	83,20	77,20	Burgos

2020ko urtarilaren 20a, astelehena

Bidea	Izena	Hasierako KP	Amaierako KP	Noranzkoa
A-1	Madril-Irun	352 N-622 lotunea	336 Trebiñu	Burgos
A-1	Madril-Irun	329 Trebiñu	321 Burgos	Burgos
N-240	Tarragona-Bilbao Barazarretik	55,77 Bizkaia	23,08 Bizkaia	Vitoria-Gasteiz
N-240	Tarragona-Bilbao Barazarretik	23,08 Araba	4,9 Araba	Vitoria-Gasteiz

4.– 17:00etatik 21:00etara, egun hauetan: uztailaren 31n

10:00etatik 15:00etara, egun hauetan: abuztuaren 1ean.

Bidea	Izena	Hasierako KP	Amaierako KP	Noranzkoa
A-8	Kantauriko autobidea	119,5	139,21 Kantabria	Kantabria
N-634	Donostia / San Sebastián- Santander	107	136,140 Kantabria	Kantabria
AP-1	Burgos-Kantaurikoa	83,20	77,20	Burgos
A-1	Madril-Irun	352 N-622 lotunea	336 Trebiñu	Burgos
A-1	Madril-Irun	329 Trebiñu	321 Burgos	Burgos
N-240	Tarragona-Bilbao Barazarretik	55,77 Bizkaia	23,08 Bizkaia	Vitoria-Gasteiz
N-240	Tarragona-Bilbao Barazarretik	23,08 Araba	10 Araba	Vitoria-Gasteiz
N-622	Altube - Vitoria-Gasteiz autobia	7,6	4,5	Vitoria-Gasteiz

5.– 16:00etatik 21:00etara, egun hauetan: martxoaren 22an eta apirilaren 13an.

Bidea	Izena	Hasierako KP	Amaierako KP	Noranzkoa
A-8	Kantauriko autobidea	139,21 Kantabria	119,5	Bilbao
N-634	Donostia / San Sebastián-Santander	136,140 Kantabria	107	Bilbao
AP-1	Burgos-Kantaurikoa	77,20	83,20	Vitoria-Gasteiz
A-1	Madril-Irun	336 Trebiñu	352 N-622 lotunea	Vitoria-Gasteiz
A-1	Madril-Irun	321 Burgos	329 Trebiñu	Vitoria-Gasteiz
N-240	Tarragona-Bilbao Barazarretik	23,08 Bizkaia	55,77 Bizkaia	Bilbao
N-240	Tarragona-Bilbao Barazarretik	4,9 Araba	23,08 Araba	Bilbao

6.- Bezperako 22:00etatik egun hauetako 22:00etara: apirilaren 13a, maiatzaren 8a eta 21a, ekainaren 1a, uztailaren 14a eta azaroaren 11.

Murritzapen honek mugaz haraindiko garraioari baino ez dio eragiten.

Bidea	Izena	Hasierako KP	Amaierako KP	Noranzkoa
AP-8	Kantauriko autobidea	100 Amorebieta-Etxano	0 Frantziako muga	Behobia
GI-20	Donostiako saihesbidea	15,572 AP-8ko lotunea Aritzeta	0 AP-8ko lotunea Errearteria	Frantzia
A-15	Nafarroa-Gipuzkoa autobidea	139,7 Nafarroa	156,560 N-leko lotunea	Andoain
AP-1	Vitoria-Gasteiz - Irun autobidea Eibartik	102,700 Etxebarriko bidesaria	146,150 Maltzagako lotunea AP-8rekin	Irun
A-1	Madril-Irun	321,4 Burgos	329 Trebiñu	Vitoria-Gasteiz

Bidea	Izena	Hasierako KP	Amaierako KP	Noranzkoa
A-1	Madril-Irun	336 Trebiñu	352 N-622 lotunea	Vitoria-Gasteiz
N-I	Madril-Irun	405,450 Nafarroa (Etzegarate)	454,470 AP-8/AP-1eko lotunea Lasarte-Oria	Frantzia
GI-636	Errenteria-Irun (lehengo N-I)	0 GI-20 lotunea Pasaia	17,235 Behobia	Frantzia
GI-11	Lasarte-Oria - Donostia (lehengo N-IA)	0 N-Ieko lotunea	2,523 GI-20 lotunea	Donostia
N-121A	Behobia/Nafarroa	68,460 Nafarroa	75,020 Behobia	Frantzia

III. ERANSKINA

SALGAI ARRISKUTSUAK

1.– Beti eta salbuespenik eskatu beharrik gabe:

Salgaiak		Garraiatzeko baldintzak
– Etxeetarako gas likidotuak, botiletan nahiz zisternetan sartuak, bai banaketa-guneetara eramateko, baita kontsumitzaileei banatzeko ere		– ADRn ezarritakoak.
– Gasolindegia hornitzeko gaiak.		– ADRn ezarritakoak.
– Errepide-garraioko ibilgailuak hornitzeko erregaia, kontsumo propioko zentroetara zuzenduak.		– ADRn ezarritakoak.
– Trenbide-garraioa hornitzeko erregaia		– ADRn ezarritakoak.
– Itsasontziak eta aireontziak hornitzeko helburua duten erregaia, portuetara eta aireportuetara zuzenduak.		– ADRn ezarritakoak.
– Etxeko berogailuetarako gasolioak.		– ADRn ezarritakoak.
– Osasun-zentroyen funtzionamendurako behar diren gasak, etxeetan partikularrei osasun-laguntza emateko garraiatu behar diren gasak, baita, helburu berarekin, banaketa-biltegiara eramaten direnak ere, baina beti egiaztatu behar da garraioaren helburua hori dela.		– ADRn ezarritakoak.

2.– Salbuespena eskatu eta justifikatzen bada.

Salgaiak		Garraiatzeko baldintzak
– Industria-guneen funtzionamendurako behar-beharrezkoak diren salgaiak.		– ADRn ezarritakoak eta baimena ematerakoan agintzen direnak.
– Osasun-etxeetatik ateratzen diren edo haietan sartzen diren produktuak, 1. atalean jasota ez daudenak.		– ADRn ezarritakoak eta baimena ematerakoan agintzen direnak.
– Portuetara zein portuetatik eta aireportuetara zein aireportuetatik garraiatzen diren salgai arriskutsuak, nahitaez debekatutako egunetan zirkulatu behar badute.		– ADRn ezarritakoak eta baimena ematerakoan agintzen direnak.
– Piroteknika materialak.		– Baimena ematerakoan agintzen direnak.
– Beste edozein gai, salbuespenezko kasuetan garraiatzea nahitaezkoa bada.		– Baimena ematerakoan agintzen direnak.

IV. ERANSKINA

SALGAIAK, ORO HAR

Beti eta salbuespenik eskatu beharrik gabe:

- Animaliak bizirik garraiatzeko.
- Azokak, erakusketak, ikuskizunak eta bestelako ekitaldiak (kirol, kultura, hezkuntza edo politika arlokoak, alegia) instalatzeko zama-ibilgailuak.
- Soil-soilik prentsa garraiatzen dutenak.
- Posta eta telegrafoak garraiatzen dituztenak
- Ikus-entzunezko komunikabideen unitate mugikorak garraiatzen dituztenak.
- Garraiatzen diren salgaiak herriz herri saltzeko bereziki egindako ibilgailuak.
- Larrialdietarako ibilgailuak.
- Hutsik datozen ibilgailuak, aurretik aipatutako garraio-motei lotutakoak.
- Errepidean laguntza-zerbitzua emateko garabiak (V-24 seinalea), bakar-bakarrik euren basetik gertakariaren lekura joateko edo ibilgailua istripuaren lekutik edo matxuratuta dagoen lekutik ibilgailua utzi behar den lekura eramateko eta basera hutsik itzultzeko.
- Laguntza-ibilgailuak, edo premia-premiazko zerbitzuen oinarrizko instalazioetan konpontze-lanak egiteko beharrezko materiala garraiatzeko ibilgailuak (linea elektrikoa, gas, urak, telefonia, komunikaziotarako zuntz optikoa).
- Neguan, errepideen bidezaintza mantentzeko material urtugarriak garraiatzen dituzten ibilgailuak.
- Zerbitzu-makina autopropulsatuak eta garabi jasotzaileak, gertakaria izan den lekuan presaz eta berehala agertu behar den kasuetan, zerbitzua zirkulazio baimen osagarri bati lotuta dagoenean, eta ezinbestekoa da baimen horietako baldintzetan jasota dagoen abisatze-betebeharra betetzea.
- Salgai galkorrak erregulatuko tenperatura batean garraiatzea, salgai galkorren garraioari buruzko nazioarteko akordioaren (ATP) 3. eranskinean ezarritakoaren arabera, baita fruta eta barazki freskoak ATPren I. eranskinean adierazitako arauekin eta definizioekin bat datozen ibilgailuetan garraiatzea ere. Hala ere, salgai galkorrak gutxienez izan behar dira ibilgailuak karga erabilgarriako daukan edukieraren erdia, edo ibilgailuak karga erabilgarriako daukan bolumenaren erdia bete behar dute.

V. ERANSKINA

SALGAI ARRISKUTSUETARAKO IBILBIDEEN SAREA (SAIS)

Salgai arriskutsuen garraioa, oro har

Bidea	Ibilbidea
AP-8	0 KP (Behobia) / 110 KP (BI-625 lotunea)
A-8	114 KP (AP-68 lotunea) / 115 KP (Miraflores)
AP-8 (MHS)	115 KP. (A-8 lotunea Miraflores) / 129 KO (Ugaldebieta)
A-8	122 KP (N-637 lotunea Rontegi) / 139 KP (Kantabria)
N-637	8 KP (A-8 lotunea Barakaldo) / 28,8 KP (AP-8 lotunean Erletxe)
AP-68	0 KP (A-8 lotunea) / 77,7 KP (Errioxa)
BI-625	382,6 KP (AP-68 lotunea) / 386,6 KP (AP-8 lotunea)
N-622	4 KP (Vitoria-Gasteiz) / 23 KP (AP-68 lotunea Altubetik)
AP-1	77 KP (Burgos) / 83 KP (N-1 lotunea Armiñon)
A-1	321 KP (Burgos) / 329 KP (Trebiñuko muga, Armiñón)
A-1	336 KP (Trebiñuko muga, Iruña Oka) / 391 KP (Nafarroa)
N-I / A-1	405,5 KP (Nafarroa, Etzegarate) / 454 KP (AP-8 lotunea)
A-15	139,8 KP (Nafarroa, Berastegi) / 156,56 KP (Andoain N-1eko lotunea)

